

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kirol munduko maiorista zenbaitzuei eskainiko diegu gure TXAIKOLNAMOREN distribuzioa, hala nola Decathlon, Forum, Intersport eta baita ere hipermerkatu kate haundiei: Carrefour, eroski, mercadona, lidl, El Corte Inglés, etab.

Guk denda propiorik izango ez dugunez, egokiagoa eta ekonomikoki interesgarriagoa iruditzen zaizkigu merkaturatzeko kanal hauek. Produktu bakarra daukagu eta ezinezkoa litzateke gure denda sarea bultzatzea.

Bestalde internet bidez zuzenki saltzea ere ez da gure aukera izango. Lehen aipatu diren maioristei konpetentzia egingo ez diegula ziurtatzeko modu fidagarrina iruditzen zaigu, eta bide batez gure seriotasuna azaltzeko lema.

Sare sozialetan indartuko dugu TXAIKOLNAMOREn imagina, bideo berriak astero igoz.

Iragarkiak egitea (komunikabide ohizkoak erabiliz) ez dago gure proiektuan. Txirrinduak presentzia duten festa eta gertakari sozialetan gure flyerrak agertu daitezzen arduratuko gara.